

Bonbon Factory

Bonbon Factory, izenak dioen bezala, bonboi fabrika eta enpresa bat da.



Txokolate multinazional handiak (Milka, Nestle, Valor, Lindt...), populazio gehienaren gustuetan oinarritzen dira, eta egiten dituzten txokolate eta bonboiak ez dituzte berezitasunik. Berezitasunez hitz egiten dugunean, esan nahi duguna da, normalean, animalia koipea, esne laktosaduna eta abar erabiltzen dituztela txokolateak egiteko.

Baina, zer gertatzen da geratzen diren beste pertsonekin (Zeliakoak, Begetariano eta Beganoak, laktosa intoleranteak, diabetikoak...)? Gutxitan pentsatzen dute haiengan, eta egia da batzuetan laktosa gabeko eta azukre gabeko txokolateak egiten dituztela, baina hau ez da oso maiz gertatzen.

Beraz, guk proposatzen duguna da Bonboi Fabrika bat non pertsona guztien arazoak eta gustuak ditugun kontuan.

Hau aurrera ateratzeko, gure ideia da web orri bat egitea, non jendeak 6 edo 12 bonboiko kaxa pertsonalizatuak erosi ditzazken; pertsonalizatua dela esaten dugunean, erosle bakoitzak nahi dituen bonboiak sartu ditzazkela kaxa barruan esan nahi dugu. Horrela, erosle bakoitzak bere oremiak ase ahal izango ditu.

Gure ustez, proiektu berritzaile bat da, ez dugulako inoiz holakorik ikusi.